

www.noaia.com Noaia !!



Europako Legebiltzarra aukeratzeko hauteskundeak

Etxebizitza proiektuak geldi

Olarriondo eta Ugartondoko lur-sailak
belaze izaten jarraituko dute





Produktu ekologikoekin osasuna eta elikadura zaindu



erretzeladik eziteko produktu ekiditzaileak: sesamoa, haziak, quinoa, arto azaba.

lekaleko produktuak: Cibusoak, garbentzuak.

ERRAUSKETARIK EZ LURRA BAsERRIA HERRIA BIZIRIK



Alkartasuna Baseritarren kooperatiban aurkituko dituzu



MAHUKA

etxebeste 3 • ☎ 943 361 106

Erraustegian sortuko diren sustantziek ze ondorio dakartzate?

"...Elikagaien bidez sartzen dira dioxinak gorputzean..."
Beraz, erraustegiaren inguruan sortutako elikagaiak (arraultzak, esneak, sagarrak, barazkiak, haragia eta abar) **inork ez ditu erosi nahiko.**

Iturria: Ingurugiro Ingeniaritzako Institutu Graduatua. Ingenieritzakolkastetxea. Taiwango Unibertsitate Nazionala. 2003.

Osasun-tekniko batzordea

ERRAUSKETARIK EZ LURRA BAsERRIA HERRIA BIZIRIK



Albistea iruditan !!

Folk festa atsegina

Kalean egoteko giro ederra egin Kzuen pasa den larunbatean. Horri esker, asko izan ziren Korrontziren doinuak deituta Dema plaza ingurura hurbildu zirenak. Hurbildu eta euren trebeziak erakarririta, saio bukaera arte Korrontzi ikusten geratu zirenak.

Zeltiar kutsuko kantuak eskaintzen hasi ziren. Baina batez ere, "Getxo" azken diskoko kantuak eskaini zituzten. Giroa berotzen joan zen eta, saio bukaeran, jendea dantzan jarri zuten.

Aurretik, Kantu Taldekoak aritu ziren kalejiran. Eta 20:00ak aldera hasi zen Korrontziren saioa.



PASA DEN LARUNBATEAN FRONTOIAN ARITU ZIREN KORRONTZI TALDEKOAK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
 Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
 Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
 Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

LABOAREN OMENALDIA, HUNKIGARRIA **5. OR.**

OLARRIONDO-UGARTONDO, GELDI **8. OR.**

EKAINAK 7, HAUTESKUNDE EGUNA **10. OR.**

HEZIKETA ZIKLOETAN ERE, EUSKARAZ **12. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LAUKOTE

**ORINDEGIA
 KAFETEGIA**
 Puntapax kalea, 16 behea
 (Artzabal) 943 36 09 80

**ARRAINDEGIA
 PELLO**

 Puntapax Kalea, 7
 Tlf 36 21 64
 USURBIL

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186



ARITZ GORRITI

Inguruari, kasu!

Egindako kaltea maila eta modu berean itzuliko baliagu, zer gerta liteke? Pentsatze hutsak oilo ipurdia jartzen dit. Inoiz ahaztuko ez genukeen eta ondorio latzak ekarriko lizkigukeen "zaplazteko" galanta jasoko genuke ziurrenik. Ez baita gutxiagorako. Inor gure nahietara makurtzea nahi badugu, bere gogoia, beharra edota iritzia aintzakotzat hartu gabe, ez litzateke harritzekoa izango, "inor" hori, edozein izanda ere, haserretzea eta gure aurkako jarrera argia hartzea gainera; salatzea, zigortzea... Are gehiago, bere mende bizi garela eta bere onurak gure probetxurako baliatzen ditugula jakinik. "Inor" gutaz mendekatuko balitz zer jasan beharko genuke? Galdera horri erantzuteko gaitasunik ez izateak, ezjakintasunak alegia, ezinegon, eta ezinegonak beldurra sortzen dit.

Pazientzia handia izaten ari da, gehiegi gurekin. Beno, egia esan batzuekin besteekin baino zertxobait gehiago. Halere, "inor" hori epailea balitz, Usurbili zigorra zertxobait (edo zertxobait baino gehiago) arinduko lioke, Sagardo Egunez geroztik pilotalekuan esekita dauden bi zenbaki "potoloak" bere alde ditu eta.

Maiatzaren 24an hain zuzen, urtero legez Sagardo Eguneke jai giroaz gozatu ahal izan genuen lur gainean. Euri apur bat ari zuen goiz hartan, eta horregatik edo, kosta egiten zen burua frontoiko sabai aldera biratzea: Halakorik egiten zuenak bi zifrekin topo egingo zuen. San Markosko abortegiak egindako "argaltze operazio"ren berri izango luke. Dieta ederra egin du alajaina! Iaz, Usurbildik 173.200 kilo garraiatzen ziren bertara. Udaberri honetan, 25.380 besterik ez. A zer lasaitua hartu behar izan duen! Sagardo Egunean, edalontziak gora begira kartel hari zuzendu eta topa egiteko moduan ginen. Azkenean, beti gehiegi jaso edo hartu dugun horri ematen hasiak gara. Inguruenari men egiten hasi gara, eta ez goaz bide txarretik. Mendekotasun harreman batetik, parekidetasunerantz goazela esan liteke. Denborarekin nork daki, lagun minak ere izan gintezke bai. Edo ez? Geure esku dago. Bera beti hor baitago, guri duen gutzia emateko prest. Arazoa geurea da, ez berea. Gu gara laguntasun bide horretan pausoak eman behar ditugunak. Eta ari gara. Ekainaren 5ean, Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, azken hilabeteotan egindakoa ospatuko al dugu?

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !

Zaborren gerratik zaborren iraultzara

Duela urte batzuk zenbait agintariek zaborren arazoari beste arazo batekin erantzutea erabaki zuten, erraustegia eraikitzearekin. Erraustegia baliatuz, zaborra dioxina, furano, metal astun, CO₂, eskoria eta errauts toxiko bihurtzea izan da haien "irtenbidea". Ordutik hona, herritarrok zentzuzko irtenbide bat ematea eskatzen aritu ondoren, azkenean lortu dugu Usurbilgo udalak eskaerarekin bat egitea, eta guztion osasuna den ingurumenari begira, hondakinen arazoari irtenbide erreala bat emango dion sistema martxan jartzea, atez atekoa. Alternatiba erreala hori Euskal Herrian bertan gauzatzeak erraustegiaren behararen diskurtsoa hankaz gora jarriko zuela jakitun, erraustegizaleek hariak mugitu eta zaborren gerra antolatzeari ekin zioten. Azken batean, erraustegia eraikitzearen erabakia, ikusi denez, teknikoak baino, politikoa da. Jendea aurka jartzeko egia balio ez zenez, gezurrak asmatu eta zabaltzeari ekin zioten: kiratsa herrian zehar zabalduko zela, jendeak izu-

garrizko nahastea edukiko zuela, ordutegiarekin ez dakit ze arazo edukiko genuela, organikoa biltzeko edukiontziaekin antzeko emaitzak lortu daitezkeela, udal erabaki bat inposaketa dela...

Ohituen aldaketak eta ezagutzen ez dugunari aurre egin beharrak beldurra, zalantza eta kezka eragiten ditu. Egia esan, bazekiten nondik jo behar zuten aldaketa galarazteko: beldurra sortzetik. Gezurarekin nahikoa ez eta boikoterako deia bidez beraien gezurrak egi bihurtzen saiatu dira, hau da, kaleak zikin egon daitezten, gaika bildutako zabor ehunekoak lehengo maila apalean mantentzen eta abar. Dena, errua atez ateko sistemari botatzeko, erraustegia herri ondoan jar diezaguten asmoarekin. Herri mugimendu gehienentzat betatuta dauden komunikabide (irizisortze bide?) handien laguntza ere izan dute gezurrak eta matxinatzeko deia zabaltzerako orduan.

Hala ere, harro esan dezakegu usurbildar gehienek informazioaren bideari heldu eta

ohiturak aldatzearen beharra ulertu eta bere gain hartu dutela. Atez atekoak egin duen ibilbide honetan pozarren dakusagu gaika bildutako hondakinak %28tik %76ra igo direla, gure kaleak inoiz baino garbiagoak daudela edukiontzi zikin horiek kenduta eta zaborra ateratzea sekula baino erosoagoa dela etxe atarira jaitsi baino egin behar ez dugulako. Usurbildarrok gure etxetan bertan ikusi ahal izan dugu zenbateko errefusa sortzen genuen lehen eta zenbat gutxitu den atez atekoarekin. Gainera honezkero aldaketa zena ohitura bihurtu zaigu eta ez digu aparteko ez neke, ez buruhausterik sortzen ordutegiak, egutegiak, zaborrak sailkatzeak, ez ezerk. Horrela, aldaketa gauzatu, esan dezakegu erraustegizaleek sortu nahi izan duten zaborren gerra gainditu eta Usurbilen zaborren iraultza gauzatu dugula. Orain, gure esperientzia gainerako herriei ezagutaraztea eta erraustegiak alternatiba baduela ozen aldarrikatzea dagokigu.

Usurbil Bizirik

Omenaldi hunkigarria

Denbora nola pasatzen den, urte erdia Mikel Laboa gure artetik joan zenetik. Baina hor dirau berak utzitako ondarea. Bizirik, pasa den igandean frontoi atzean egin zitzaion herri omenaldian nabarmen agerian geratu zenez. Eta ordutik, bere txokoa du Laboak Usurbilen. Frontoi atzeko plaza.

Sentikorra oso, hunkigarria izan zen Mikel Laboari maiatzaren 31n egin zitzaion herri omenaldia. Non eta frontoi atzean, Laboak lagun zuen Zumetaren muralaren babespean, Artzetarren bizilekutik gertu. Ondoan, aurrerantzean bere izena eramango duen plaza inauguratu zen. Mikelen emazte Marisolek kendu zion estalkia, ikurrina, Pelexek egindako plakari. Herriko dantzariak eskaini zuten aurrekoa eta gero, zabalik dago Mikel Laboa plaza.

Maitasun hitzak, Mikelentzat

“Maite zaitugu Mikel, betirako, betidanik” desioz amaitzen zen Kultur Aholku Batzordeak, herri omenaldiko eragileak prestatutako idatzia. Aipatu testuak ondo baino hobeto deskribatzen

zuen, Mikelek hainbatetan Usurbilera egiten zituen bisitaldiak. Kale Nagusira eta handik gora frontoi inguruko kaleetara, “ezagun nahiz ezezagunak agurtzen ditu pasaeran, kariñoa dariola bazter guztietatik”.

Txoria izan zuen ardatzetako bat Joxanton Artzek eskaini zuen poema erreztaldian. Baita Joxe Domingo Aizpuruak idatzi eta Olatz Altunak irakurri zituen bertsoek ere. “Zu zinan gure txoria, guk txoria zaitugu maite”. Kantu berriak sortuko direla gaineratzen zen. Eta txoria, baita Mikelek hain ezagun egin eta txalapartari zein Iñaki Salvadorren musikaz lagundurik, abestu zuten kantuen artean. Aurten osatu den Euskal Kantu Taldekoen eskutik, eta haiekin batera, frontoi atzean omenaldi hunkigarriarekin bat egin zuten beste hainbat herritarrek Mikelek utzitako ondarea bizirik mantentzeko, egin ziezaioketen omenaldirik onena burutu zuten; bere kantak abestuz Laboari ohore egitea.

Mikelen emazte hunkituaren hitz sentikor eta esker onen artean amaitu zen ekitaldia, bertaratutako txalo zaparradarekin.



MIKEL LABOAREN ETXEKOAK
OMENALDIAN IZAN ZIREN.

Eskultura ipiniko da

Mikeli zerbait idazteko gogoak duenak, erregistro liburuak zabalik jarraitzen du. Hemendik aurrera, Sutegiko udal liburutegian. Bestalde, Mikel Laboa plazan jarri nahi den eskulturarako lehiaketa antolatuko du Udalak.

Ika-mika !

Martxoan baskongadetako hauteskundeak izan genituen eta ekainaren 7koak berriz Europakoak izango ditugu.

Orain hiru hilabete ehun mila bozka baino gehiago ezabatu zituzten. Erabilitako arrazoi guztiak indarrean oinarrituak izan ziren. Nik esan eta nahi dudana bezala jokatzen ez baduzu, zure bozka guztiak zabor ontzira botako ditut eta ez dute balioko. Nik nahi dudana bezala jokatzen ez baduzu, ez duzu inongo aukerarik izango, eta D3M papertxoekin “harrapatu” zituzten bat baino gehiago izan zen atxilotua.

Hala eta guztiz, ikusi nahi ez zituzten 100.000 papertxo baino gehiago azaldu zitzaizkien hautes-ontzietan eta berriro

Hauteskundeak

Gasteizko legebiltzar horretan eseri diren alderdi guztiak bereganatu (lapur hitza gehiegi dela diote baina bakoitzak pentsa dezala) ondoren aulki pozoinduetan eseri direla ikusi dugu.

Jokabide horrekin, nahiz eta aurka dardela esaten diguten, Europako Legedirik atzerakoienetakoa den Alderdi Legeari berriro zilegitasuna ematen ikusi ditugu eta herritarren ahotsa zanpatuz bozka horiek guztiak maltzurki beraien interesetarako bakarrik erabili dituzte.

Ez da lehenengo aldía erasoan gainetik milaka euskaldunek ausart jokatzen dutela eta ziur naiz (maiatzaren 21eko greba orokorrean bezalaxe) berriro ere ausart jokatzeke prest dagoen mila euskaldun ditugu

la inguruan.

Euskaldun ausart horiekin bat egiten dudalako ekainaren 7an Iniziatiba Internazionalista-Herrien Elkartasuna alderdiari emango diot nere bozka. Herri ezberdinen arteko elkartasunaren alde nagoelako beretzat izango da nire bozka. Hitz ponpoxoetatik haratago egiteko prest dagoenari emango diot nire bozka eta Euskal Herria bezalako herri zapalduetako biztanleek askatasunez erabakitzeke aukera izan dezaten, European ere borrokatzeke prest dagoenari emango diot nire bozka eta Iniziatiba Internazionalista-Herrien Elkartasuna alderdia sartuko dut hautes-tontzian.

Orkatz*

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

KALEBERRI

IRATI PORTU

Azkenean udara



Pasa da dagoeneko usurbildarrok urte guztian buruan izate dugun eguna. Batzuen buruko mina eta askoren gozagarri izaten dugu Sagardo Eguna. Baina zenbat kezka izan dugun aurten eguraldiarekin!

Goizean zerua zeharo lainotuta esnatu zen. Eguraldia nahiko kaxkarra izan bazen ere, barkatu gintuen eta sirimiri soilean geratu zen. Arratsaldean ordea... ez naiz hemen aipatzen hasiko, ziur bainago denok dugula buruan. Hala ere, ausartenak hor ibili ziren txarangaren atzetik, eta nahi zuen ororentzat frontoi aldean Ostolaza eta Pujanaren saio ederra entzungai izan zen.

Gainera, kasualitatea badirudi ere, Sagardo Eguneko zaparradaren ostean eguzkia izan dugu adiskide. Eutsi beharko diogu bada.

Azkenean udara! Gainean ditugu San Joanak eta baita Santixabelak ere. Ziortza gazte taldea ere dagoeneko ari da aurtengo kanpamendua lotzen. Azkenean udara! Eguraldi ona, hondartzara lehenengo egunpasak, ikasturte amaierak, inguruko herrietako festak... ez dago zalantzarik, azkenean udara! Ondo pasa!



TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Belarrak ontzen



Eguraldi onarekin batera udaberri-udan Egin beharreko lanak izaten dira. Irabiko erriberatik hasi eta Sanesteban alderaino ikusi daiteke jendea ari dela baratzak eta belarrak prestatzen.

Udaberrian eguraldiak ez du lagundu eta baratzetan ez da aukera handirik izan ezer egiteko. Orain ordea lanak pilatzen dira, lurra prestatu, erein, landatu, udaberriko lehen barazkiak jaso...

Bestalde, belardiak ere indartsu daude aurten. Egin duen euri guztiarekin indartsu etorri da eta orain belarrak ontzeko garaia izaten da. Moztu, lehortu, giratu eta negurako jasotzen dira. Gutxi batzuk badira ere, bada oraindik metatorroak lehenbizi eta metak egiten dituenik. Konturatu gabe ordea, desagertzen ari zaizkigu betidanik ikusi izan ditugun metabelarrak eta hauen ordezkari "bolak" ikusten ditugu. Gero eta baserritar gehiagok egiten ditugu "bolak" eta dagoeneko esan genezake, ohikoenak direla gure paisaian.

Garaian garaiko lanak izaten dira eta uda atarian gaudez eta giro ederrak iritsi direnez, aprobetxatu egin beharko dugu. Neguan zerbait izango badugu, orain egin beharko ditugu lanak.

ATXEGALDE

MAJESUS URBIETA

Berria

Pasa den asteburuan eta aspaldian ez bezala, eguraldi bikaina izan dugu. Jendeak eskertu zuen eta aprobetxatu ere bai, hondartzara joateko edo mendira bueltatxo bat egitera. Negu luzearen ondoren merezi genuen zerbait dela esango nuke.

Gure auzoan bi ezkontza ere izan genituen batetik Ibon eta bestetik Jaione. Zorionak bi bikoteei. Bestalde igandean jaunartzeak ere izan genituen parrokan. Gaztetxoak urduri baina pozik eta oso apain. Elizan bildu zirenek, eta batez ere gaztetxoek, ospakizun bikaina bizitzeko aukera aparta izan zuten.

Sagardo Eguna ere pasa berria dugu nahiz eta orduan, eguraldiak ez lagundu. Jendea bustita ibili zen kaleetan zehar. Goiz partean eutsi bazion ere, arratsalde partean euria gogoz bota zuen eta batzuk festan ibili baziren ere, asko erretiratu egin ginen.

Azkenik esan, auzoko etxe berriak azken txanpan direla. Etxe inguruak txukundu dituzte eta itxura polita hartu dute etxe atariak. Auzokide batzuk zain daude, bertan bizitzen jarri ahal izateko.



KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Uda atarian



Kostata bada ere iritsi dira eguzkia eta Kudararen zantzuak gure artera! Hemendik aurrera, hondartza, mendia, jaiak han-hemenka, petril giroa...

Jaiak aipatu ditudan honetan, ezin utzi aipatzeke auzokoak noski, hauexek izango baitira, beste behin ere, herrian ospatzen diren lehenengoak. Eta beste behin ere, gazte eta heldu taldea ibiliak dira jaiak antolatzen eta ikusten denez egitaraua prest dute jada: buruhandiak txikientzat, dantzaldiak gazte-helduentzat, eskea eta San Juan sua tradizio zaleentzat, antzerkia, sokadantza, meza, sardinak, oilasko biltzaileak, ume-jolasak, denetarik apur bat alegia.

Horien guztien artean aipamen berezia egin nahi nioke oilasko biltzeari. Urteetako tradizio hau mantendu egin behar dela uste dut, baina ez nolanhiko prezioan. Auzokoekin gertatu ez bada ere, zurrumurruak iritsi zaizkit bakarren batzuk azken urteotan behar ez bezala ibiliak direla baserrietara joatean; dantzarik egin ez, jatekoak edota edatekoak eskatuaz, dirua eskatuaz... Honen ondoren oso normala baserritarrak haserretzea!



Ez dugu inoiz ahaztu behar oilasko biltzaileen historia gure aitonetatik datorrela eta helburua herriko jaia landa ingurura eramatea zela. Gazte koadrila osatu eta baserrietara joatean sekulako giroa sortzen zuten eta hori eskertu asmoz, baserritarrak oilaskoa ematen zien buelta osoa amaitzean denak elkarrekin afari edo eta bazkari bat egin zezaten. Ea ba gauza hauek ez ditugun ahazten, giro ederrean ibiltzen garen eta denok gozatzen dugun.

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Aginagako Udako Txokoak



Hemen natorkizue ba betiko moduan Aginaga aldeko berri ematera. Dagoeneko ekainean sartuak garen honetan, nabaria da opor usaina. Badirudi euriak eguzkiari eman diola tartetxo bat eta honekin hondartza eta igerilekuetara bisitak egiten hasiak gara asko eta asko. Ni bi mezutzorekin natorkizue gaurkoan; Udako Txokoak alde batetik eta San Praixku jaiak bestetik.

Uda gainean dugula kontuan hartuz, aipatu behar, Aginagan aurten ere hasiak direla udako txokoen antolakuntzan hainbat guraso. Norbaiti interesatzen bazaio, izena emateko epea zabalik dago.

Bestalde, dagoeneko hasiak dira zenbait herrietako jaiak. San Juanak gainean ditugu esate baterako. Aginagako San Praixku jaietarako oraindik bost hilabete falta badira ere, prestaketa lanekin hasi behar gara. Hau dela eta, ekainaren 11n, osteguna, apaiz etxean elkartuko gara gaueko 21:00etan. Hemendik, gazte eta heldu, bilera honetara gonbidatu nahi zaituztet. Guztion artean, errazagoa izango baita guztion gustuko jaiak antolatzea.

Besterik gabe, aprobetxatu egun eguzkitsu hauek, ez dakigu zenbat iraungo duten eta!! Hurrengora arte!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Errauskailua lekuz aldatu?

Azken bizpahiru asteetan pintoreak Aibili dira Zubietan. Paretak pintatzen: Errauskailurik ez, katarik ez, etab. Jendeak begiak zabal-zabal, zerbait ikasi beharko duelakoan: Katarik? Zer arraio da hori?



Kontua da errauskailua (inzineradora) jarri nahi zuten lekua aldatu nahi dutela. Usurbildik hain agerian ez egoteko edo. Eta horretarako beharrezkoa zaie berriro lurrak aztertzen hastea, ea posiblea den leku berrian egitea. Hori dela eta lur laginak (katak, muestrak) hartu behar dituzte ingurune berrian.

Prozesu honetan berriro datoz espropiazioak –tarte baterako izan daitezkeenak–, marka berriak, laginak... Eta horren aurka aritu dira pintatzen batzuk.

Donostiako Udala eta Diputazioa ari dira Lasartetik datorren bidea berritzen –kostata–, ari dira errauskailua izkutatu nahian, eta eskaini nahiko dute karamelu gehiago. Baina –Gipuzkoan ikusi denagatik eta kanpoan entzun denagatik– garbi dago inork ez duela hori nahi aldamenean.

Kanpaina egiten ari dira tabakoa ez dezagun erre, eta errauskailua jarri nahi dugute: nola ez haserre.

Olarriondo eta Ugartondoko etxebizitzak

Udala eta promotoreen arteko negoziazioak, etenda

Apirila amaieran bertan behera geratu ziren Udalaren eta Olarriondon nahiz Ugartondon eraiki nahi diren babes ofizialeko etxebizitzetako promotoreen arteko negoziazioak. Hala azaldu zen, Udalak deituta maiatzaren 28an Kiroldegian burutu zen herri bileran. Orain arte egindakoa, etxebizitzaren eta zerrendetan izena eman duten herritarren egoera, edota etorkizun zaila ahotan hartu zituzten hizlariak.

Olarriondo eta Ugartondoko etxebizitza egitasmoak ez aurrera, ez atzera daude honetan. Udalak deituta, herritarrei eta modu berezian, zerrendatan izena emana zutenei zuzenduta pasa den maiatzaren 28an burutu zen bilkuran jakinarazi zenez, Udalaren eta promotoreen arteko negoziazioak etenda daude apirila amaieraz geroztik.

JOSU IRIONDO ARKITEKTOA

“Promotoreek, soilik babes ofizialeko etxebizitzak eginda, ez dute errentagarritasunik lortuko”

“Lurjabeen esku gaude”, adierazi zuen gobernu taldearen izenean, Xabier Mikel Errekondok. Alkatearekin batera hizlarien mahaian, etxebizitza egitasmo honetan lanean dabiltzan Yolanda Lopez de Luzuriaga abokatua, Josu Iriondo arkitektoa eta Oier Otxoantesana udal arkitektoa zeuden.

Zerrendak onartu zirenez geroztik, ezer gutxi jakin dute herritarrek aipatu gaiaren nondik norakoan inguruan. Alde horretatik, bilkuraren aurkezpen saioaren hasieran azalpenak lehenago emateko zuten borondatea agertu zuen gobernu taldetik, Xabier Mikel Errekondok. Udalera ailegatu zirenetik lehenetsun gisa definitu zuen gaiari buruzko azalpen ematean atzeratu izanaren arrazoia, bere



KIROLDEGIAN EGIN ZEN BATZARREAN JENDE ASKO BILDU ZEN. EUREN ZALANTZAK AZALTZEKO AUKERA IZAN ZUTEN.

esanetan, “garapen horretan, gauza argirik ez zegoelako zen”.

Errentagarritasunik ez promotoreentzat

Etxebizitza egitasmoak gauzatze aldera, Udala eta promotoreak adostasun batera ezin izan dira ailegatu, pasa den astean Udaletik jakinarazi zenez, promotoreek gastu finantzarioei aurre egin ezina alegatu izan dutelako pasa den udazkenean hasi eta apirila amaierara arte iraun duen negoziazio prozesuko azken hilabeteotan. Une honetan, Udala lurjabe diren promotoreen esku dagoela ziurtatu zuten hizlariak Kiroldegiko bilkuran.

Beste herrietan ere, berdin

Usurbilen bakarrik ez, Euskal Herri mailan gertatzen ari den fenomeno baten moduan deskribatu zuen Josu Iriondo arkitektoak azken aldiak gertatzen ari dena. Promotoreak desagertu direla zioen, etekinak lortu ezinik dabilzako. “Babes ofizialeko etxebizitzak eginda, ez dute errentagarritasunik lortuko”, zioen. Arkitektoak aipatzen zenez, gastu finantzarioei aurre egin ezinik

dabiltza eta ondorioz, “kutzak promotoreen lur horiekin gelditzen ari dira”. Halere, Olarriondo eta Ugartondon eraiki nahi liratekeen etxebizitzaren egitasmoek badute berezitasun bat, alkateak aipatu zuenez, testuinguru orokorretik aldentzen duena. Usurbilgo kasuan, “etxebizitza babestu eta tasatuetatik lortutako etekinekin, urbanizazio gastuak ordaintzeko adina izango lukete promotoreek”, zehaztu zuen.

Argindarraren arazoa

Alderdi ekonomikoaz gain, etxebizitzak eraikitzen ez hasteari dagokionez, egon da luzapenerako beste arrazoirik ere. Argindar transformadorearen koka-penak ere atzerarazi du etxebizitza egitasmoen garapena. Kiroldegiko bilkuran aipatu zenez, 400 etxebizitza hornitu behar zituen transformagailuaren berri udal gobernu taldea lanean hasita izan zuten. “Orduan jakin genuen etxebizitza berrietarako argindarrak ez zegoela”, adierazi zuen alkateak. Eta zentzu horretan, Iberdrolaren asmoa argia zen; ez zuten Zubietako transformadorea kendu eta lekuz aldatu nahi, egitekotan beste bat jarri nahi zuten.

Egoera bideratzeko, lau irtenbide planteatu ditu Udalak

Krisia gainditzea, lurjabeak diren promotoreek euren artean edo Udala aipatu sustatzailerekin adostasunen batera ailegatzea, horiek dira egungo egoera gainditu eta aurrera egiteko etxebizitza egitasmoei buruzko bileran mahai gainean jarri ziren irtenbideak. Egoera zaila izan, eta honenbestez, gaur egun aipatu hiru alternatiba horiek gauzatzea erraza izango ez dela aitortu ostean, esperantza puntu bat ematen dien laugarren irtenbide bat ere mahai gaineratu zuten hizlariak maiatzaren 28ko bilkuran; egoera bideratzeko inizatiba bere gain hartuko lukeen agente urbanizatzaile bat jartzea.



UGARTONDOKO EREMUAN AURREIKUSITA DAUDE HAINBAT ETXE.

KRISI EKONOMIKOAREN ERAGINA

“Promotore ezberdinak daude eta euren interesak, gainera, ez datoz bat”

Krisiaren testuinguruan, Olarriondo eta Ugartondoko etxebizitzaren gaiari lotuta Kiroldegian burutu zen bilkuran jakinarazi zenez, arazo finantzarioak izan dira promotoreek etxebizitza egitasmoei aurrera jarraitzeko erakutsitako ezintasunaren zergati nagusiak. Une honetan, bi aldean, hau da Udalaren eta promotoreen arteko negoziazioak etenda daudela ikusita, lau irtenbide desberdin planteatu ditu Udalak, etxebizitza egitas-

moak gauzatzeko garapen bidean aurrera jarraitzeko.

Udala eta Eusko Jaurlaritzaren arteko balizko elkarlana

Irtenbideetako bat krisialdia gaintzean oinarrituko litzateke, egungo egoera ekonomikoa aldatuko balitz, promotoreak etxeak eraikitzen hasteko moduan izango lirateke eta. Akordioa lortzean oinarritzen ziren Udalak mahai gainean jarri zituen beste bi alternatibak; bate-tik, promotoreak euren artean akordio- ren batera ailegatzea edota Udala izatea sustatzailerekin adostasunen batera iritsi-ko dena.

Baina krisialdi ekonomikoa noiz arte iraun dezakeen ezin denez jakin, eta promotoreek interes desberdinak dituztela ikusita, laugarren irtenbide bat proposatu zuen Udalak. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin elkarlanean, egitasmoa aurrera eramateko ardura bere gain hartuko lukeen agente urbanizatzaile bat jartzea. Azken irtenbide posible honi erreferentzia egiteko esperantza hitza aipatu zen hizlarien mahaitik, nahiz egoera zaila dela jakinarazi.

Datorren asteko NOAUA!n, jarraipena emango diogu gai honi, bestek beste, herritarren kezkei tarte eginez.

Alokairuko promozioak, aurreratuago

Bi etxebizitza egitasmok garapen fase desberdinetan daudela esan liteke. Ugartondo eremuak eraiki ahal izateko, egun bertan dauden jarduerak Atallura lekuz aldatu behar dituzte. “Jarduketa programa eta birpartzelazio proiektua laster esku artean izatea espero dugu”, adierazi zuen udal arkitektoak.

Olarriondo eremurako zazpi etxebizitza proiektu aurreikusten dira, horietatik bat salmenta librekoak eta gainerakoak, babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatuak lirateke. Gerora kalifikazioa

emateko Eusko Jaurlaritzara bidali beharko litzatekeen etxebizitza proiektuak Udalak jasotzeko ditu oraindik. Aipatu zazpi eraikin proiektuetatik bizileku sorta bat ordea, alokairu sozialera bideratzeko asmoa du Udalak, Kiroldegiko bileran jakinarazi zenez. Hizlariak aipatu moduan, “lehenesten ziren” etxebizitzak dira, 23 guztira. Aipatu eraikin proiektu hau hain zuzen, beste guztiak baino garatuagoa dago Otxoantesana udal arkitektoak baieztatu zuenez: “Etxebizitza kalifikazioa jasotzeko Eusko Jaurlaritzara bida-

lia dago proiektua”.

Lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko araua

Hain zuzen, Kiroldegian burutu zen bilkuran Xabier Mikel Errekondo alkateak etxebizitzaren gaiari dagokion irtenbidea alokairu sozialean kokatzen zuen. Hilabete gutxi barrurako, Txaramuntoko etxebizitzaren ostean egingo den bigarren zozketa iragarri zuen. Horrez gain, lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko udal ordenantza onartzeko asmoa du gobernu taldeak.

Europari begira

Europako Legebiltzarra aukeratzeko hauteskundeak egingo dira igande honetan. Usurbilgo Udaletxean ordezkatuta dauden korrante politikoen ordezkarriengana hurbildu gara, iritzia eskatzera. Ezker Abertzaleak Iniziatiba Internazionalistaren aldeko bozka eskatu du. Eusko

Alkartasuna eta Aralar alderdiak, Independentistak eta Ezkertiarrak koalizioan aurkeztu dira. EAJ-PNV, aldiz, CEU koalizioan (CIUrekin batera, besteak beste).

Alderdi sozialistaren ordezkaritari ere inkestan parte hartze-ko aukera eman zaio baina bere erantzunak ez ditugu jaso.

INKESTA

1- Zer nolako garrantzia dute hauteskunde hauek usurbildarrentzat eta, orohar, euskaldunontzat?

2- Zeintzuk dira zuek defendatuko duzuen eskaintzaren oinarri nagusiak?

CEU koalizioa



1- Euskaldunok eta, beraz, usurbildarrok, Europan txertatuta gaude. Beraz, garbi dago Europako erakundeetako erabakiak eta eztabaidak eragin zuzena dutela gure eguneroko bizitzan.

Egia da hiritarrok Europako erakundeak urrun samar ikusten ditugula. Oso zaila egiten zaigu garbi jakitea "nork egiten duen zer eta nola" Europa mailan. Hori horrela da eta EAJ-PNVk Europaren demokratizazio prozesua etengabekoa izan behar dela pentsatzen du. Baina, aldi berean, jakin behar dugu gure bizimodua antolatzen dituzten arauak %80 Europan dutela bere jatorria. Horretaz jabetu behar gara. Eta, ondorioz, euskaldunontzat Europan pasatzen denak garrantzi handia du.

Beraz, garrantzitsua denez, horregatik ezinbestekoa zaigu erabakiak hartzen diren lekuetan gu ere egotea. Ez bagau-

de, besteak izango dira gure izenean erabakiak hartuko dituztenak.

Gu bezalako herri batek ezin du hauteskunde hauetatik paso egin. Europako Parlamentuan egon behar gara, orain arte bezala. Gure nortasun politiko, ekonomiko eta kulturaletik abiatuta eskaintzeko asko daukagu Europari. Eskaini, azken batean, herri bezala eta nazio bezala, eta bide batez gure interesak ere defendatu.

2- EAJ-PNV Europaren alde dago. Ibilbide luzea eta ezaguna dugu arlo honetan. Europaren alde egiten dugu, baina ez nolanahiko Europaren alde, noski.

EAJ-PNVren aburuz euskaldunok herri bat osatzen dugu, Europako beste herrien parean. Nazio bat gara eta erabakitzeke eskubidea dugu, Europari

begira ere. Hobeto bizitzeko. Europan beste herriekin elkar lanean aritzeko. Europatik onurak jasotzeko eta Europari gure ekarpenak egiteko ere. Europan gure interesak defendatzeko eta Europa ere laguntzeko.

Zertaz aritu behar da Europa? Gure ustetan gure mugetatik kanpo konpondu behar diren arazoetatik. Adibidez: krisi ekonomiko global batean murgilduta bagaude, Europaren beharra dugu arazo honi aurre egiteko, guk hemen hartu ditzakegun neurriez gain. Berdin beste zenbait arloetan: energia, ingurugiroa, berrikuntza, etorkinak, segurtasun eta atzerri politika, garraio-azpiegiturak eta abar.

Eta azkenik, Europa benetan demokratikoa bada, errespetatu dezala Euskadiren nahia eta borondatea nazio gisa eta herri gisa.

Papera jartzea eta Pinturak orokorrean

FERNANDO PINTORAK

943 366 019
943 363 460

Kale Nagusia 1 · USURBIL

Josue Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI S.L.

oraintzi

943 366 019
943 363 460
643 430 475
643 430 476

BORDATXO edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Independentistak eta Ezkertiarrak



1- Europako Batasunaren erakundeek hartzen dituzten erabakiek zuzen-zuzenean eragiten digute herritarro. Adibidez, Europako Kontseiluak 65 lanorduetako astea bultzatu nahi zuen eta Europako Parlamentuak atzera bota zuen proposamen hori; zaborren tratamenduan ere jarraitu beharreko irizpidak Europako Batasunak ezarri ditu.

2- Bost ardatz nagusi. Eredu ekonomiko ez-espekulatibo, jasangarri eta sozialago baten defentsa. Ongizatearen estutua defendatu eta sakondu eta krisitik aterat-

zeko politika sozialetan sakondu.

Garapen eredu jasangarriaren defentsa, berotegi-gasen emisioak murrizteko neurriak, garraio- eta higikortasun-eredu berria bultzatu errepideen menpekotasunik ez duena, energia berriztagarriak indartzea eta nuklearrari ez. Garoña itxi.

Europa eleanitza eta kulturantza. Europak bere baitako hizkuntza-dibertsitatea zaindu eta sustatu behar du. Hizkuntza txikien presentzia IKTetan bermatu behar du, hizkuntza eta kultura txikiak Internet domeinu propioa

(eus) bultzatzea nazioarteko foroetan. Euskara lan-hizkuntza Europako erakundeetan.

Europak nazioarteko ordena berri baten bultzatzaile, non interbentzio armatuek tokirik ez duten eta diplomazia den bidea. Giza eskubideen defentsa trinkoa, eskubide horiek urratzen dituzten estatuekin egon daitezkeen lehentasunezko harreman komertzialak etetea.

Europa euskal gatazkaren konponbidean eta normalizazio politikoa lortzea bitartekari eta berme-emaila.

Iniziatiba Internazionalista



1. Lehenik eta behin, esan behar da ezker abertzaleak ezin izan duela kandidatura propiorik aurkeztu, herri honetan bizi dugun demokrazia ezaren ondorioz, eta, alde horretatik, txalotzekoa da Iniziatiba Internazionalistak bultzatu duen ekimena, Alfonso Sastrek berak esan bezala, ahotsik gabekoei ahotsa emateko helburuz. Horregatik, ezer baino lehen gure besarkadarik iraultzaile eta beroena igorri nahi genieke Iniziatiba Internazionalistako lagunei. Elkartasuna eta duintasuna, hizki larriz idatzi dituzte, lezio ederra eman dute, eta, dudarik ez dugu, Euskal Herriko etorkizun politiko hurbilean mugarri bat markatuko duela iniziatiba honek.

Ezker abertzaleak bai esan dio Ilren aldetik jaso dugun gonbitari. Zergatik? Batetik, bat egiten dugulako ekimen honek aurkeztu manifestuarekin, oinarrian, aldaketa politiko eta soziala bultzatu nahi dituelako, beste Euskal Herria bat eraiki nahi dugulako, eta sinisten dugulako beste Europa bat, eta beste mundu bat posible direla.

Bestetik, guk ere Euskal Herriaren eta gainerako herrien autodeterminazio esku-

bidea defendatzeaz gainera, eskubide hori gauza dadin lanean eta borrokan dihardugulako. Eta kasu honetan, Europar hauteskundeak izanik, estaturik gabeko herrien autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko parada ezin hobea eskaintzen digulako.

Eta, azkenik, koalizio honek aldarrikatu bezala, gatazka politikoa konpontzeko bidea elkarriketa eta negoziatio prozesua da giltzarria, eta Europak zeresan handia du Euskal Herriko gatazkan, eta gatazka-aren konponbideari begira.

2. Ezker abertzalearen lehentasuna egungo egoera politiko eta soziala desblokeatuko duen indar soberanista eta independentistak batzea da, prozesu demokratiko bat artikulatze aldera. Hauteskunde hauen karietara, norabide horretan egin dugu lan, Euskal Herria Europaren aurrean eskubidedun nazio gisa agertzeko eta aldaketa sozial eta politikoa nahi dugunon ahotsa inoiz baino ozenago entzunarazteko.

Oraingoan ez da posible izan, baina, seguru gaude, luze gabe, indar metaketa hori gauzatu, gauzatuko dela. Baina

horretarako, ezinbestekoa da ezker abertzalea indartzea, iniziatiba politikoa berreskuratzea, eta bloke soberanista hori martxan jartzea, prozesu demokratiko baten ikusmiran. Gu, seguru gaude, gehiengoak aldaketa nahi duela, aldaketa politikoa eta soziala, eta ezker abertzaleak gehiengo horri perspektiba estrategikoa eta eraginkortasun politikoa eman nahi dio.

Horra hor ekainaren 7an Iniziatiba Internazionalistari bozka emateko arrazoi nagusia: prozesu demokratikoaren aldeko bozka izango da.

Ekainaren 7an konponbide demokratikoen aldeko "tsunami" soziala sortu behar dugu. Benetako sozialismo baten bidean, aberastasuna banatuko duten politika ekonomikoen aldekoa. Geure ordua da!

Iniziatiba Internazionalistaren aldeko botoa Euskal Herriaren nahiz bere eskubideen aldeko botoa da; Herrien arteko elkartasunaren aldekoa; aldaketa sozialaren aldekoa; demokrazia sozial eta politiko baten aldekoa. Orain eta hemen posible diren beste Euskal Herria eta beste Europa baten aldeko botoa da.

KALITATERIKO
EUSKAL OKELA

ALKORTA
AUTOZERBITZUA

Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak

Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

Usurbil
Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,
Aitzearra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

Heziketa Zikloetan ere, euskaraz

Erdi eta goi mailako heziketa zikloetan aurre matrikulatzeko aukera dago, ekainaren 12ra arte. Epea zabaldu zen egun berean, hilaren 1ean prentsaurrean, Buruntzaldeko udalek DBH-ko ikasketak burutu ondorengo heziketa zikloetan bailaran dagoen ikasketen euskarazko eskaintza aurkeztu zuten. Gertuenetik hasita, Zubietako Lanbide Heziketako eskolan, erdi-mailako bost heziketa ziklotan euskaraz matrikula daiteke. Beste seitan goi-mailari dagokionez. Hezkuntzan euskara bultzatzeko dagoen beharra azpimarratu zen ekitaldian. DBH eta Batxilergoetan ez bezala, Heziketako Zikloetako ikasleen %30-35 artean matrikulatzen baita egun D ereduan.



BAILARAKO IKASTETXEETAKO ORDEZKARIAK BILDU ZIREN, HERNANIKO BITERI KULTUR ETXEAN BURUTU ZEN AURKEZPEN EKITALDIAN.

Patinaje ikastaroa Zubietan

Zubietako Eskola Txikiak antolatatu duen Kultur Asteak jarraipena izango du datozen egunetan.

Ekainak 4 osteguna,
17:00etan pailazoak

Hipo eta Tomax pailazoen emanaldia.

Ekainak 5 ostirala,
17:00etan haur jolasak

Haur jolasak, buruhaundiak eta txokolatada.

Ekainak 6 larunbata,
patinaje ikastaroa

9:00etatik 11:00etara: hastapena
11:30etatik 13:30etara: hobekuntza
(ekarri patinak, kaskoa eta babesak).



PATINATZEN IKASTEKO AUKERA DAGO LARUNBATEAN ZUBIETAN.

Bihurri ludotekan
bazkide egiteko epea
laster amaituko da

Ikasturte honetan, Bihurri ludoteka legon da martxan. Lehen, Gure Pakea zahar egoitza izan zen toki berean. Bertako gurasoek aditzera eman dutenez, bazkide egiteko azken eguna ekainaren 12a izango da. 2010eko urtarri arte, ez da berriro bazkide egiteko aukerarik izango.

Giltzak ere, ekainaren 12an emango dira 18:00etatik 19:00etara, Bihurri ludotekan bertan. Bestalde, garbiketa txandetan izena eman ez dutenei lehenbailehen ematea eskatzen zaie, bestela zozketa bidez egingo da lan-banaketa.

ZUBIARRIENA 4, LIBURBIL
ileapaindegi mistoa
943361951

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Hiri hondakinei buruzko herri galdeketa loteslea izango da

Pasa den maiatzaren 29an gobernu taldeak ingurumen alorreko eragileekin hitzordua zuen Sutegin. Hiri hondakinen kudeaketari lotuta burutuko den galdeketa itxura ematen hastea zen helburua. Hiru egun lehenago egin zen ohiko osoko bilkuran, herritarrei egingo zaien aipatu galdeketa horretako zenbait irizpide finkatu eta onartu zituen udalbatzak; batetik, galdeketa emaitza loteslea izatea eta bigarrenik, herritarrek hartutako erabakia aldatzeko ere bide eta pauso berak erabiltzea, hots, dagokion galdeketa egitea.



MAIATZAREN 26AN EGIN ZEN AZKEN OSOKO BILKURA.

PSE-EE eta Aralar, alde

Gobernu taldearen proposamena, PSE-EE eta Aralarko zinegotzien babesarekin aurrera atera zen. Proposamenarekin bat zetorren Amaia Goyaran, baina galdeketa burutzeko epea zehaztea faltan botatzen zuela adierazi zuen. Gaia bideratuta uzteko epea proposatu zuen Aralartik Joxe Ramon Furundarenak; ekaina bukaera. Gainerakoan, gobernu taldearen proposamenarekiko poza agertu eta hartutako bidea ona zela azpimarratu zuen. Positibotzat jo zuen ingurumen alorreko eragileekin Udala egitekoa zen bilkura.

EA: "Lehenik jakin nahi dugu, zer galdera egingo den"

Aurka bozkatu zuten aldiz, EAko udal ordezkariak. Galdeketa irizpideak zehazteko gai zerrendako puntua mahai gainean uztea eskatu zuen Salome Portuk. Galdera zein izango den jakin gabe, konpromiso sendoak hartzea ez zirela ausartzen adierazi zuen. "Lehenik jakin nahi dugu, zer galdera egingo den", adierazi zuen. Bozketa egin zen, baina gaia ez zen mahai gainean geratu. Gobernu taldetik, ingurumen eragileekin egitekoa ziren bilkurarekiko kon-

fiantza erakutsi eta herritarrek erabakitzeko duten eskubidearen alde agertu ziren.

EAJ, abstentziora

Azkenik, EAJPNVko zinegotzia abstentitu egin zen, galdera zein izango den ez delako ezagutarazi.

Ingurumen alorreko herri eragileekin burututako elkarlanetik ateratako proposamena, Ingurumen eta Nekazaritza batzordera eramango da. Eta handik osoko bilkurara, udal ordezkariak bozka dezaten.

Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, jokoak eta tailerrak

Nagusiki sentsibilizazioa sustatzea du helburu Ingurumenaren Nazioarteko egunak. Aurtengoa ostiral honetan ospatuko da. Udalak hainbat joko eta tailer antolatu ditu.

Ostiral honetan, frontoian

Parte hartzaileak, geroz eta gehiago entzuten den kontsumo arduratsu, aldaketa klimatiko, energia berriztagarri eta jasangarritasuna bezalako kontzeptuekin jolas egin ahal izango

dute. Hitzordua, ostiral honetan ekainak 5, 16:30etik aurrera frontoian.

Modu arduratsuan erosketak egin edota hiri sostengarriaz norberak izan dezakeen ikuspuntua erakusteko aukera izango da ostiral honetan, ekainak 5. Udalak zenbait tailer eta joko hezigarri antolatu baititu Ingurumenaren Nazioarteko Egunean testuinguruan. Alor honetan sentsibilizazioa bultzatu asmoz, etxea ekologikoa izateko zer egin dai-

tekeen ikasi, eta egin ohi diren gehiegikeriez jabetzeko aukera izango da. Baita aldaketa klimatikoa zerk sortzen duen eta zer nolako ondorioak dakartzaten ikasteko ere. Energia berriztagarrien tailerra ere zabalduko da, energia eraginkortasuna bultzatuta, gutxiago kutsa litekeela konturatzeko. Udalak antolatutako joko eta tailerrak, aipatu bezala, ostiral honetan, ekainak 5, 16:30-19:30 artean frontoian.

Udarregiko neskek, Gipuzkoako txapelaldunak

Usurbil KE eskubaloit taldeko neskek protagonistak izan dira ikasturte honetan. Baina atzetik datozenak ere oso ondo ari dira. Harrobia, beraz, ziurtatuta dago. Izan ere, Udarregi ikastolako alebinak denboraldi ederra osatu dute. Pasa den igandean, alebin mailako Gipuzkoako finala jokatu zen Bidebieta kiroldegian, Donostian. Aurrez aurre, Urnieta eta Usurbilgo Udarregi taldea. Bertan izan zirenek azaldu digutenez, partida bikaina jokatu zuten usurbildar gazteek eta horri esker urrezko domina eskuratu zuten. Beraz Gipuzkoako Txapelketa irabazi eta gero, denboraldi bikaina osatu dute Udarregiko neskek. Zorionak!



IGANDEAN, FINALA IRABAZI ETA GERO POZ-POZIK ZEUDEN JOKALARIAK.

Bigarren mailara igo dira



Denboraldi bikaina osatu du Usurbil KE taldeak. Neskek inoiz baino hobeto ibili dira eta, senior mutilek ere, Bigarren Nazionalera igotzea lortu dute (Euskadiko Txapelketa bezala ere ezaguna). Territorial mailara jaitsi zen taldea duela zazpi bat urte eta, azkenean, lortu dute igotzea. Iker Portularume eta Manzano entrenatzailearen aginduetara aritu diren mutilek ederki ospatu zuten iguera.

Paleta goma txapelketa, aste honetako partidak

Aurreko asteburuan hasi zen paleta goma txapelketa. Bigarren jardunaldia igande honetan jokatuko da, arratsaldeko 17:30etik aurrera Usurbilgo frontoian. Hauek, hurrenez hurren, jokatuko diren partidak:

Ibon Azkonobieta - Eneko Iradi
O. Usabiaga - M. Aranburu, Haritz

Enrike Huizi - Unai Lataillade
Harreguy - Josu Rekondo

Iñaki Rekondo - Jon Arruti
Imanol Esnaola - Iñigo Irastorza

Xabier Izeta - Jon Irazustabarrena
Josu Arruti - Haritz Zubiaur

Ilusapaindegia eta Solarium-a

Ioli Lizarralde

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiurrenea, 5B ☎ 943 361 971

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Txokoaldeko buelta eta hamaiketako, "Kirolari atek zabalik" egunean

Duela bost urte hasi ziren "Kirolari atek zabalik" izeneko eguna antolatzen Bartzelona, Turin (Italia) eta EAeko hiru foru aldundiak. Aurten, lehen aldiz, Usurbilgo Kirol Patronatuak bat egingo du jai moduko honekin. Gure Pakea Zahar Egoitza eta Andatza Mendi Taldekoek ere bat egin dute ekimen honekin.

Ekainaren 14an Ikastolaren Eguna ospatuko da. Baina baita "Kirolari atek zabalik" izeneko eguna ere. Hala ere, biak osagarri egin asmoz, Kirol Patronatuak goizez egingo du ekitaldia; Txokoaldeko paseoa. 9:00etan abiatu kiroldegitik eta 11:00etarako Artzabalen izango dira bueltan. Hartara, animatzen direnek, Ikastolaren Egunean ere parte hartzeko aukera izan dezaten.



GURE PAKEA ETA KIROL PATRONATUKO
KIDEAK, EKIMENAREN AURKEZPENEAN.

Txokoaldera joan-etorria

Goizeko 9:00etan abiatuko dira kiroldegitik eta Santuenetik Txokoalderako bidea hartuko dute. Hala adostu dute Gure Pakea zahar egoitzak, Patronatuak eta Andatza taldeak. Adin guztiegi egokitutako martxa izango da. Beraz, hortxe gonbitea. Artzabalen egingo den hamaiketakoarekin bukatuko da Europatik datorren ekimen hau.

Ane Bailok eta Leire Furundarenak Gipuzkoako Pala Txapelketa irabazi dute

Maiatzaren 23an jokatu zen Gipuzkoako finala, Anoeta herriko frontoian. Alebin mailako finalean, argazkian dauden bi neska gazteak nagusitu ziren: Ane Bailo eta Leire Furundarena.

Zubietako Pilota Elkarteari esker eta Eskola Kirolaren baitan neskek ere pilotan jokatzeko duten aukera aprobetxatuz, astero beste neskekin batera entrenatzen aritu dira. Horretaz aparte, aipatzekoa da Anek eta Leirek izan duten entrenatzaileak egin duen lan ona. "Garazi entrenatzailearen laguntzarekin



USURBILGO BI NESKA GAZTEAK,
FINALA IRABAZI BERRITAN.

Gipuzkoako txapeldun izatera iritsi dira" aitortu digu gurasoetako batek. Zorionak neskak eta eutsi goari!

Aste honetan hasiko da Usurbil Cup txapelketa

Ostiralean, 18:30ean hasiko da Usurbil Cup futbol txapelketa. Lehenik, alebin mailako partidak jokatuko dira frontoian eta ondoren infaniletakoak.

Larunbatean, aldiz, alebin, minibenjamin eta benjamin mailako partidak.

Aitzaga Mus Txapelketa

Ostiral honetan, ekainak 5, Andatze elkartearen jokatuako Aitzagako Mus Txapelketaren azken jardunaldia. 22:00etan hasiko da eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Jardunaldiko onenen artean lau sari banatuko dira. Eta ondoren, puntuazio orokorraren arabera, txapelketako lau bikote onenek sari bereziak eskuratuko dituzte.

Pilota Txapelketa, azken laurdenetan

Ekainak 6 larunbata, 11:00
AZKEN LAURDENAK
JUBENILAK

Alustiza-Manterola / Loidi-Larraia
(Amezketak) (Añorga)

NAGUSIAK

Berberena anaiak / Urmeneta-Eizagirre
(Baztan) (Añorga)

Ekainak 7 igandea, 11:00
AZKEN LAURDENAK
ZUBIETAKO PILOTALEKUAN
JUBENILAK

Iriondo-Murgiondo / Mendoiro-Juanena
(Azpeitia) (Baztan)

NAGUSIAK

A. Aranburu-Elola / Errasti-Katalina
(Lasarte-Oria) (Usurbil)

 **Kima** 
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

 **Enrique Alonso**
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

-Oro har libratze-lanak
-TB kamerakin hodi eta
tximinien azterketa
659 675 283

Agenda !

Ekainak 5 ostirala

“Gezurrezko printzea”, antzerki saioa
Sutegin. 22:00etatik aurrera, doan.

Ekainak 8 astelehena

“Navarra como paradigma”, hitzaldia
Sutegin. 19:00etan.

Ekainak 9 asteartea

Usurbilgo haur eta nerabeen beharren ikerketaren aurkezpena, 18:00etan
Sutegin.

Ekainak 10 asteazkena

Mahai-ingurua: drogomenpekotasuna,
Udarregin 17:00etan.

Eguneko goardiako farmaziak

Ekainak 4, osteguna
Gil, Nagusia 24, Lasarte

Ekainak 5, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Ekainak 6, larunbata
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil *

Ekainak 7, igandea
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Ekainak 8, astelehena
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Ekainak 9, asteartea
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Ekainak 10, asteazkena
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Ekainak 11, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

Ekainak 12, ostirala
Gil, Nagusia 24, Lasarte

Ekainak 13, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Ekainak 14, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Castilla Farmazia (22:00-09:00), Urbietakalea, 7 Hernani 943 552 941
*Usurbilen, soilik eguerdira arte

“Gezurrezko printzea”, ostiral honetako antzerki saioa

Senarraren bizitzaren mende dagoen emakume baten istorioa da antzezlan honen abiapuntua. Bikote-bizitzan izandako bizipenak kontatuko ditu Edurne Agirrezabala aktoreak: bien arteko “kimika ona” sortu zen garaitik gaur egungo tratu txarretaraino. Senarraren ama gaixotu egin da eta emakumeak lan egiteari utziko dio amaginarreba zaintzeko; bitartean senarrak betiko bizimoduari eutsiko dio... Hitz-Ahok antolatu du antzerki saioa.



TRATU TXARREI BURUZKO
ANTZEZLANA 22:00ETAN HASIKO DA.

“Ura falta da!”, erakusketa

Barrenkaleko lokalean

Ana Urdangarin, Larraitz Izagirre eta Pelex herritarrak Etiopiaren aldeko elkartasun erakusketa antolatu dute. Etekinak hango proiektuak garatzeko bideratuko dira.

Ekainak 8, ekainak 14
Inaugurazioa: ekainak 8,
astelehena.

Astelehenetik ostiralera, 18:30-20:30.

Larunbata, 12:00-14:00 / 18:30-20:30.

Igandea, 12:00-14:00.

Tokia: Barrenkaleko lokala
(udaletxe ondoan).

Independentziaren historiari buruzko ikastaroa amaitzera doa

Nafartarrak, Usurbilgo Udalak eta Nabarraldeko antolatu duten ikastaroa datorren astelehenean amaituko da. Azken hilabeteotan, independentziaren historia izan dute hizpide.

Astelehenero, gure historiari lotutako hitzaldi interesgarrietan parte hartzeko aukera izan dute. Ikastaroa Luis Maria Martinez Garateren hitzaldiarekin amaituko da.

Ekainaren 8an Sutegin
“Navarra como paradigma”, datorren astelehenean eskainiko den hitzaldiaren izenburua. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Sutegin.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ANTXETA taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 945 370 344

ETXEBIZITZA

- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414
- Usurbilen, bikote batek logela (etxe berria) alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943 575 788 / 609901 734.
- Pisu bat daukat alokairuan eta pisukide baten bila nabil. Hilean 250 euro. 615 006 390.
- Santuenan etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukaldea eta komuna dauzka. 28 milioi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisu salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berriua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 3200 metro karratuko lur zatia salgai Kalezar auzoan. 665720913
- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bertsioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako esku- librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- "Yamaha especial 250" motorra salgai. Egoera onean, 700 euro. 615 006 390.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai.

- 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaraginan (Dia ondoan) 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.
- Usurbilgo Sendategiak erizaina behar du OLT-EDU (ATS-DUE). Lan baldintzak jakiteko 943361124 telefonora deitu.

Lan-eskaintzak

- Etxeko lanak egin edota haur zein pertsona helduak zaintzeko prest. 696 907 495.
- Umeak zaintzeko Usurbilgo andre bat eskaintzen da, esperientziarekin. 659 628 447.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantzan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago.

654 217 752.

- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
- Agapurni txori bat galdu dugu maiatzaren 8an kaxkoan. Loro mota bat da eta gorputza grisa du, lepo eta buruak txuriak eta isatsa urdina eta grisa. Aurkitu baduzu, bueltatzea sarituko da. 943370722.
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. Galdu duenak deitu 656774127 telefonora.
- Frantseseko klaseak ematen dira Usurbilen. Maila guztietakoak. Astelehen eta asteartean arratsaldetako 20:30ean. Maiatzaren 4an hasiko gara. Informazio gehiago Laurok Liburudendan.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galde-tu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Izaro!

Zorionak matraka ekainaren 2an bete dituzun 4 urteengatik. Muxu potolo piloa familia guztiaren partez!



Zorionak Aitana!

Ekainaren 7an zure urtebetetze eguna da. Txokolatezko sei muxu goxo, aita, ama eta Mariaren partetik. Ondo pasa zure eguna!



Zorionak bikote!

Aitak 23an eta Anek 25ean urte bat. Familia guztiaren partetik ondo pasa eta muxu bat!



Zorionak eta muxu handi

bat Paule eta Aimarri zuen urtebetetze egunean, guraso eta famili guztiaren partez.

Zorionak Leon eta Ivan!

Batak ekainaren 6an urtebete eta besteak 8an hamaika urte. Zorionak eta muxu handi bat. Ondo ondo pasa!



JAIOTZAK

- Alba Piñeiro Ardanaz, maiatzak 14
- Amaia Agirresarobe Elorza, maiatzak 25

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

LATAILLADE

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 365 348 · 609 888 021



Zorionak
zurii,
zorionak
betii...



ATEZ ATEKO BILKETA, INGURUGIROARENTZAT OPARI ONENA

**Txirri, Mirri
eta Txiribiton
Junior** noauaren eskutik

**Ekainak 13
17:30tan
Usurbilgo frontoian**

HERRIEN elkartasuna



bozkatu

